

# G O R B E A

FOR JESUS DE ALTUNA

Eztakit zer-daukan mendi-onek bizkai'ko ta bai arabar eta bezte mendigoizale asko-rentztat, pozkiro bertoratutzeko. Egia da mendizaleak mendiguztiak doguz atsegingarri, baña, Gorbea'k beraganduta dauzkagu, goiena, zabalena, bizkai'ko andiena dalako? Eztatik zergaiti, dakiguna-da, menditarte orretan gago zanean, geure baratzen edo ortuan gagozania baizen alai gagoz.

Gorbea'k galdu-dau pizkabat orain urtebatsukarte eukin eban edertasuna, beren gaztañadi, areitz eta pagadi ederrak, kendu eutzazalako aitz-kora bitartez, baña, ori kendu-arren beren guztira (conjunto), bikañan, onena-taraikuan aurkitutzen dau mendigoizaleak. Bedarlanda ederrak (araba'ko landa), aitzarte ikusgarriak, Itxina alderdia, arkaitz-zorrotz ikerragarriak, leza ondargabe eta arrobi (koba) baltza bildurgarriak eta abar. Orregaitik, zaletasun guztietako mendigoizaleak aurkitu litzakie jardeketa (ocupación), Arkaitz-igotzaleak (escalador), non-nai aurkituko dauz bereb neurriko arkaitz zorrotz eta labainak, baita leza-zaleak-be, ainbat Gorbea'ko alderdietan, asko-barriz, oraindik iñork arakatubakoak. Ibiltari ona ba'zera, mendizale, maitia, artu zintzake edozein, Gorbeo'ren albo-erriatik bertaratutzen diran burdi-bide edo bide-ziur bat, eta, zuzendieko zera bedarmendi garbiak diran Ipergorta, Odo-riaga, Berretin, Oketa, edo danon buru dan Gorbeagana'ra, berton aurkituteko dozu amazortzi neurkiñeko gurutze deuna, geure kistar ziñez ikasbide (ejemplo).

Gorbea'ren gallurretik ikusi gintzake lau alderdietara ikuspeirik bikañan, Ipar-aldera begiraten ba'dogu ikusiko do gu gure Iurrealdea bustitzen daben kantu'riko itxas-basterra. Sorkalde'rantz, gure ikusmēna Anboto, Aitzgorri, Ernio eta Aralar'etik erduko da Aya'ko aitzetara eta Larrun mendi'ra. Pizkabat Ego-alderantz Urbatza, Andia eta Kodes'tik Naparra'ko Auñamendi'araño. Geure atzalkalde edo Ego'ranta begiratu ondoren ikusi gintzake, eguna argi-zamar ba'dago, Aragoi'ko Auñamendi'n azita Monkayo, Demanda, Urbion ta abar. Eta azkenez geure ezkeredo Sarkalde-aldeetik Orduña aldeko

goibel edo sierra Salvada'tik azita Espinosa eta Reinosa'ko mendietatik Europa'ko muzturrak (Picos de Europa) ikusiko dira. Aurkeztuete litzake ikuski-zun ederragorrik geure bigian aurea? ez edozein menditan.

Beste atsegingarriak-be ba'daus Gorbea'k: bertoko artadi, zaldi, bei ta abar. Geure egarria asetutzeko ur-on eta gozoak. Eta egun-batsuk berton igaro noi-badoguz, artabe (refugio) onak'be ba'dira. Lenen Araba'ko landan, mendigoizale bazpatza (federación) rena eta landa-orreta berta «G. A. Ganguren'rena», eta urriñago, Egiriñao'n «Bilbao Alpino» bazkuna «Juventus O. A.» eta «Iberduero» renak. Pizkabat berutzako Agiñalde'n-be ba-dira iru edo lau, uren artian Lemona'ko «Cementos» landolak ia amayan daukena. Artabe guztiok naiko ez-balitzake, emen daukaguz artzain jatorrak, noz-nai mendi-zaleari aguntzeko gertu.

Gorbea'ra beren larrenetan dagozan edozein erritatik igotzenda, baña, guk egokien aurkitzen doguzan bideak oneik dira:

Bizkai-aldeetik, Zanuri, Arraba'ra ordu 1,40; Gorbeanaga'ra 2,40; Aziatza (Villaro) tik 3,10; Barazar'etik 2,30; Orozko-Ibarra'etik 2,30; Araba'aldeetik, Murgia'etik 3,00; Murua'tik 2,30; Bezte erretikbe ba'dago, Baranbio, Ubidea eta abar.

Mendizalea zarritan Gorbea'ratutzen ba'zera, beste toki ikusgarririk-be aurkituko do zu gure mendi-maitagarri askota lez, eta bezte ezer-idorotzen ez-badozu-be, osasune, alaitasune ta apaltasune ziur-aurkituko dozuz, ezta naikua?